

Barco sendia. Itsas ekintza eta gizarte eraikuntza XVI. mendearen amaierako Bilbon

(The Barco family. Sea activities and social construction in late 16th-century Bilbao)

Sesmero, Enriqueta; Enríquez, Javier
Ronda, 12, 3. ezk.
48005 Bilbo
e-mail: enrikesmer@euskalnet.net

BIBLID [1137-442X (2002), 21; 279-293]

Hamaseigarren mendean, Barco senideak Bilboko merkatal eliteen artean oso nabarmenak bihurtu ziren. Komunikazio honetan, lortutako boterea bi belaunaldietan zehar aztertzen da. Ekonomian, abagune-krisiari moldatu ziren, Ipar Europako mihise finen merkataritza makalau merkearekin osotuz, ekintzak fami-liloturen bidez anitzuz, eta bidatzak Portugalgo merkatariekiko harremanez Atlantikorantz zabalduz. Politikan, uriko udaletik Jaurerriko gobernuraino joan ziren, Bizkaiko erakunde administatiboak finkatzen ziren arabera.

Giltza-Hitzak: Itsas merkataritza. Makailu arrantza. Endogamia. Tokiko boterea.

Durante el siglo dieciséis, los hermanos Barco adquirieron gran importancia entre la élite comercial de Bilbao. En la presente comunicación, se analiza el poder que adquirieron en dos generaciones. En economía, se adaptaron a la crisis coyuntural complementando el comercio de paños finos de Europa del Norte con bacalao barato, multiplicando sus actividades por medio de enlaces familiares, y abriendo los viajes hacia el Atlántico por medio de relaciones comerciales con mercaderes de Portugal. En política, abarcaron desde el ayuntamiento de la ciudad hasta el gobierno del Señorío, a medida que fueron afianzándose los organismos administrativos de Vizcaya.

Palabras Clave: Comercio naval. Pesca del bacalao. Endogamia. Poder local.

Pendant le XVI^e siècle, les Barco devinrent très distingués au sein des élites commerciales bilbanaises. À travers deux générations, on analyse leur action. Ils s'adaptèrent à la crise économique en complétant leur intermédiation de tissus nord-européens avec la morue, en diversifiant leurs activités grâce aux liaisons familiales, et en élargissant leurs routes vers l'Atlantique au moyen des marchands portugais. En politique, ils passèrent de la mairie au gouvernement de la Seigneurie, en même temps que les institutions biscayennes cristallisaient.

Mots Clés: Commerce maritime. Pêche à la morue. Endogamie. Pouvoir local.

Konparatiboki, Bilboko XVIgn mendeko itsas jarduerak aztertzeke ez dago iturburu askorik. Epai izkribu ia guztiak desagertu egin dira; notari protokoloetaz berbera susma dezakegu, eta geratu zaizkigunek, eskribau gutxietakoak izanez, salbuespenak erakusten ote dizkiguten jakiteko ez dugu biderik; tokiko merkataritzaren helduera kontutan hartuz, Kontsulatuak ez digu oso adierazkorik utzi; eta artxibo pribaturik ez dago, ala ez eskuragarri bederen. Hala ere, aroko egoera nahiko ondo ulertzeko gai izan gaitezen moduan agonista batzuren ibilbideak gordegin dizkigute. Kanpo salerosketak eta itsas zabaleko arrantzak behar zituzten direlako “euskal bakeak”, Baionako gas-koin, Laburdiko arrantzalet eta Gipuzkoko eta Bizkaiko merkatal burgesen arteko itunbenak zirenak aztertzelarikan Barco senideak ezagutu genituen, krisialdi itzelean zehar garaile nabigatzen zirela. Komunikazio honek haietat aurkitu ditugun ezaugarriak nabarmenenak baino ez ditugu aurkeztuko. Dokumentazio arazoak ahazten ez baditugu ere, kasua garaiko goi mailako burgesiaren eraikuntza eta jokaera ulertzeko erabilgarria dela uste dugu. Jakin, badakigu denbora eta lekua artifizialki mugatu ditugula. XVIIgn mendean Barcotarren belaunaldiei etorkizun hurbilean jarraitzeko asmotan gaude.

BARCOTARREN -ETA KIDEEN- JARDUERA EKONOMIKOA

Barco sendia, XVIgn mendearen bigarren zatian, Bilboko itsas elitean nabarmena zen, batez ere kalitatezko ehunak eta mihiseri finak Ipar Europatik ekartzeari eta Espainiako Koroaren erresuma batzuetatik banatzeari esker. Ez ziren helduberririk. Sancho del Barco, 1511ean, Bilboko ehunsaltzaileen Gurutze Sainduaren anaiartean arduradun nagusia zen¹. Elkarki gortza eritasunean eta arima hiltzean zaintzeko Europako artisauek edo saltzaileenak bezalakoa zen, bai, baina ez arrunta: Kontsulatuaren aurrekaria izan zen. Hurrengo urteetan kontsulegoan Barco abizena askotan berpikatuko zen². Aldagarria aldatuz, itsas inportazio-espertaziotik bizibiderik nagusia ateratzen duen komunitate batentzat erakunde honen boterea udalarena ia bezain eraginkorra, eta gehienbat osagarria, bihurtuko zen. Geroago aztertuko dugun sendiaren jarduera politikoa ulertzeko ez dugu zehaztasun hau ahaztu behar.

Hutsunez eta zalantzez, senitartearen genealogia XVIgn osoan zehar marratzu ahal dugu, baita -eta komunikazio honetarako bereziki- merkatal edota ezkontza atxikidurarik garrantzitsuenak. Orrialdeok bost belaunaldi eta haien pareko jendeetat aurkitutako datuetan oinarritzen ba dira ere, haietari-

1. Bizkaiko Foru Artxibategia [B.F.A.], Udalak [U.], Bilboko Udal Artxiboa [B.U.A.], (kontsultatu geneuean) katalogo kanpokoa. Sancho Garcia del Barco 1509an uriko lehengo suhiltzaile-sisteman partaide izateko ohorea zuen, kontseiluak -udalak, esan dezagun- auzo nagusiei emandako 100 tresketariko bat arduratuz (id., Dekretuak, 1. kutxa). Pertsona izenekin aldi hartako erderaren erizpideak erabiliko ditugu, ortografia eguneratuz, hizkuntza hori izkribuetarako bakarria izanez gain aroko herri erabilkeraz berriker heldu ez zaigulako. Kontrakoa ez badinogu, agertuko diren merkataria Bilboko auzoak ziren.

2. B.F.A., Bestelakoak, Erakundeak, Bilboko Kontsulatua, Aktak, 450. eta 451. liburuk (1512-94, 1594-1662): 1569tik 1626 rarte, 10 aldiz Bartolomé eta 12 Hortuño.

ko biren bidatzak baizik ez ditugu hurbildik jarraituko: Bartolome (aktiboagoa 1560-1590 artean) eta (H)Ortuño eta Sancho anaiak (1580tik 1600arte ikertuko ditugunak). Bata eta besteen arteko hogeiei edo hogeitamar urteek ezberdintasun sakonak eragin zizkieten: mendearen lehengo erdiaren abagune positiboak Bartolome gero eta gorantzago altxatu zuen; haren bi semeek ikasitako teknikak eta heredaturiko harremanak bermoldatu behar zituzten, guztiz urrunak zitzaizkien interesek piztutako gerrek, monarkiaren diru-eskaera etengabeek, klima txarragotzeak eta ondoriozko txirotzeak sortu zituzten itsas garraioen aurkako eragozpenei eta eskari murrizketari gibel emateko.

Aintzinako Erregimenean giro ezberdinetako familietan, etxekoen askatasuna ez zen lan eta ezkont-erabakiak hartzeko estrategien ardatza, mantentzeko hain konplikatu zen senide guztien egoeraren alde. Beraz, Barcotarren primuek arbasoek eraikitakoa onartu eta erabili behar zuten. Honela lortutako espezializazioari esker Bilboko pareko kapitalistekin elkarlehian ez ziren adina aritzen elkarbidean baino, beste sektoretakoak bateratuz edo funtzionalki elkarsteak ziren epe labur edo ertaineko asoziazioen bidez. Biztanleria kopuruarekin konparatuz goi kalitatezko ehunen salmenta nahiko hestua zenez gero, ahaleginak arlo honetan kontzentratu egin zituzten, ahalik eta bezetzeria luzeagoa bereganatzeko. Bitartean, kideetasunak edota ezkontzak emandako senitasun politikoaz, eremu ezberdinetan jarduten zutenak beraiekin ados jarri zituzten, osagarritasuna -mozkinak- guztientzat hobesteko. Honetarako bakean nahiz gerratan hain ondo saltzen zen burdina (mea, esku-langintzarako lantze sinplezko platinak, etab.) eta erlijio inposaketengatik etxe guztietan ostiralero eta beste bijilia egunetan sartzen zen arrain lehortuta edo gazitua aukeratu zituzten. Ikus dezagun nola.

Bartolometaz dokumentazio gutxi heldu bazaigu ere, Paris eta Flandresko mihiseria, eta areago Nantesko portuan kontratagunerik nagusiena zeukan Bretainako fin-fina, ekartzen zituen produktueterik ugariagoak zirela argi dago³. Itsas zabaleko arrantzarekin kontaktutan egoten zen ere. Bizkaiko arrantzaleak, 1560-70 inguruan, baleengana irtetzen ziren oraindik⁴. Gipuzkoako itsasgizon asko baleetan aritzen zen, beste europarrak arrantzaleku berrietan arrakastaz sartzen ziren bitartean; eta, agian Jaurerriko uribilduen buruzagia izateko Bermeo arrantzale uriarekin aspaldidaniko Bilboko leihagatik, bilbotar merkatariei berrin baino gehiago saldu zion⁵. Dena den, gehiegizko arrantzagatik zetazeoek ihes egiten zuten arrantzale atzeritarrak gogorki sartzen ziren arrantzalekuetara; bestalde, biztanleria hazkuntzak elikagaiak behar zituen. Gure herriko banatzaileentzat etekin handiko alternatiba argi

3. Hurrenez-hurren: B.F.A., Judiziala [gal honetarako ia espediente guztiak notari protokoloak izan arren], Bizkaiko Kor rejimendua [hemendik aurrera, laburki, B.K.], 2643-158 (1567 urtean, Miranda de Ebrora), 480-36 (1560), 197-117 (1566, Gemikara). Normalean, adibide eredugarri bat soilik aipatuko dugu.

4. Batzutan, itsasontziak Nantesen hornitzen zituzten. Ik. B.K., 23-87 (1568): "arrisku eta zoriazko" inbertsioa [azalpena, 12.-13. oharren artean], esku-langintzarako oso beharrezkoa eta artile prestakuntzarako erabilia zen koipearen truke.

5. Id., 1121-61 (1567); pleitaria San Juan de Fano burdin-saltzailea zen, arriskuak aniztasunaren bidez txikitzeko (ik. 34. oharren inguruan Aparicio de Ormaecheren jarduerak).

zegoen: makailua. Arrain espezie hau lur garraio moteletarako oso egokia zen, errezkari kontserbatzen eta pilatzen zelako, eta sinesmen-beharrezkotasuna ondo betetzen zuen, sukalde aberats edo pobreetan ohizkoak ziren lapikokoetarako Galiziako sardinak⁶ baino erabilgarriagoa izanez.

Eskeintza aniztasunaz salmenta-gorabeheren arriskuak txikitzeko, arrain nahiko merke honen bitartekaritzan hasi zen Bartolome, ia seguraski haren garraio- eta banatzaile-sareetatik. Jaurerrik eta alboko eskualdeetatik ez ezik, Gaztelan zehar luzatzen ziren⁷. Horien artetik, ipar Soriano mendi belarditsuetan, Cidacos arroa, ia seguraski Flandresera utzizamarik preziatuena zen artile merinoa ematen ziona; erresumaren muga fiskal alboan zegoen Miranda de Ebro, lotura Meseta barrurako eta Errioxarako errepideekin, zeinetatik artilea etor litzaioke ere; Penintsulako hiri handi aberatsenatarikoa zen Toledora; eta Medina de Rioseco eta Medina del Campo nazioarteko ferietara, handik fisikoki banatzeko eta, batez ere, aginduak eta ordainketak tratatzeko. Azken hiri honetan 1581ean Espainiako Felipe II erregetzat onartu zuen Portugalgo merkataria eta Europa Atlantiarrarako bidatzak laster hasi zituen Bartolomek, egoera politikoa berriaren muga-zabalkuntzaz probetxatzeko. Ez edonola, gainera: Simon Ruiz kide txit ospetsuaren agentea bihurtu zen⁸. Barcotarrentzat portugeseekin sinbiosian egotea benetan onuragarria izango zen, batez ere mihiseria eta, gero, burdinak bidaltzeko⁹. Gogora ditzagun nola merkataritzari esker elite portugesak aberastu egin zirela eta erresuma horren kolonietako nagusi gutxiengozko baina boteretsuak bezeria potentzial erakargarria zirela. XVIgn amaierako zirkuitoak, hango agenteek Bilbon bertan prestatuak ere, fermuki eraikita zeuden, batez ere Bizkaiko lehen (totxoak) eta bigarren (platinak) burdingintzan eta, atzetik, makalauan¹⁰. Ardoak eta sardinaz galiziarak eta portugeseko ekoizpenak ekartzeko Ibaizabal arroa Kantauriko Mendebaldearekin lotzen zuen aintzineko bidatza Oporto eta Aveirotik Lisboaraino luzatu zenean, sektorean bitartekariak izan ez ziren diru-emaileak erakarri zituen¹¹.

6. Batzutan gure merkatariek saldutakoak ere, Ribadaviako ardo preziatuen bila joaten ziren itsasontzietan ekarritakoak. Honela Pedro de Sabugal galdara-saltzailea (edota egilea?), kobre gordina eta landutakoak hasi izan zena (ik. 11. oharra): metal hori eta burdina bidaltzen zituzten, ardoak, sardinak eta beste arrainen truke (B.K., 86-240 [1590]).

7. Id., 2224-85 (1567, Rmales [gaurko Kantabrian]), 882-62 (1593, Yanguas), 636-117 (1585: bitartekaria Vinuesako garbitegiaren langile batentzat; ez dirudi artile prestaketaz zuzenki arduratu zenik), 1603-120 (1597, arraina eta beste salgai Palentziako Fromistaren abadearentzat), 797-44 (1567, Toledo), 832-43 (1583, Medina de Rioseco), 2659-400 (1560, Medina del Campo), etab.; ik. 3. oharra.

8. Id., 87-59 (1591), jatorriz Oportoko auzoa zen eta Bilbon pertsonalki tratatzen ohi zuen Diego Pereira portugesearekin; 2702-109 (1586), Lisboako egoliarak ziren frantses merkatariekin; bietan, Ruizen izenean.

9. Famili-sustraiengatik ondo ezagutzen zuen Somorrostron erosi zuen (id., 636-285, 1590). Izkribua bakarra denez gero, ez dakigu ia salbuespenezkoa zen, beharbada (ala osagarriki) arlo honetako espezialista eta Bartolomeren suhia zen Aparicio de Ormaecheren eskuetan uzteagatik.

10. Gure hiriko partehartzaile ospetsuenarikoen artean, Martín de Abendaño Gamboa (ik. id., 351-17, 1593); Tristan de Aboitz Leguizamon, Abendaño bezala Erdi Aroko leinu garrantzitsuen semea zena (id., 87-204 [1591]; Hortuño eta Sancho del Barcorekin Oportorantz); Sancho de Careaga (id., 437-86, 1594: Portugalgo bezeroak Donibane Lohitzungo makalau-ontzi baten hornimenduan); Barcotarren negoziokide asko baita ere.

11. Adibidez, 6. oharren aipatutako Pedro de Sabugal (B.K., 436-277, 1594: inbertitzaile nagusia Bilbori hainbeste unti-maestre ematen zioten Castro-Urdiales urikoa zen untzian).

Zeharkako ildoetatik -barka gaitzazu, irakurle, pentsatzeko era honengatik- makailu arrantzan parte hartzeko bilbotarren bigarren erara heldu gara: arrantzuntziak bidatarako behar zituzten gauze hornitzea, batez ere Bizkaian erresumako "estanco" zergetatik salbuetsia zegoen gatza makailua landuta ekartzeko, untzilarientzako elikagaiak eta edari alkoholduak, eta sarritan tresneria eta itsaslapurren edo arerioen aurkako armateria¹². Gehienbat erabiltzen zen era delako zori handiko mailegua zen, balea arrantzarako ere sinatzen zena. Jabeek edota maestreek erosketak egin zitzenen, kapitalistek bidaia hasi baino lehen ematen zuten, ekarritako arranez eta koipez berreskuratzeko; arriskua, portutik irtetzen zenetik lehengo deskarga-porturaino inbertitzaileena izango zen, hortik poliza mota honen izena. Finantza aldetik, Jean-Philippe Priottik zehazki-mehazki aztertu du, nazioarteko merkatal gorabeherak eta gerrak kontutan hartuz¹³. Historialari frantsesak azpimarratzen dituen abantailak ez doazkio arrain-salmentari soilik. Ba zen erosotasuna salgaia banatzeko prest eskuratzea gazigintzaz eta garraioaz arduratu gabe; korritua ez diruz, baizik eta materialki berrematen zenez gero, egitez mailegu arruntena baino garestiagoa bihur liteke; eta txanponek berezko balioa edukitzeagatik monarkiak ezarri zuen lurraldetik moneta ateratzeko debekua ekiditzen zen¹⁴.

Geure kabuz, arbuigarriak ez ziren ondoko onurak gehi diezaizkiokegu. Nabigazioaren gorabeherak arranuntzia Bilboraino ordeztatu besterik gabe portu batera eramango balute, saldutako zamaren dirua gasturik gabe itzuliko litzateke. Honek, asko-askotan untzia baten jabea zenez negozioan sartuta zegoen maestreak salmenta abaguneari moldatzeko aukera ematen zion, bidatzan eskuratutako berrien arabera, komunikabideen informazio-eguneratzeko moteltasuna gaintuz. Berezko zirkuituak zituen Gipuzkoaz aparte, kasu horretarako aurreikusten ziren erresumak Portugal, Gaztela eta Frantzia izaten ziren. Untzia laburtarra izateari esker, azken horretako portuetara joatea zilegia izango zen beti, Felipe II. arekin bakean nahiz gerratan egon -horregatik gerratetan erregeak zamen zirkulazioa eragozten saiatzen zen, ez untziena. Honek eta, batez ere, beren espezializazio bikainak Laburdiko itsasgizonak Bilboko merkatarien preziatuenak bihurtu zituzten -batez ere, Donibane Lohitzungoak eta Ziburukoak-, egiteko konpainia sendoak osatzeko¹⁵. Baldin elkargatzen baditugu Flandres, Britainia eta Portugal arteko tratuak, Priottik dinoskun bezala Baiona eta Donibane Lohitzun Espainiarako kontraban-

12. Ik. id., 636-25 (1590), Laburdiko getariaren makalau- eta baleauntzijaheen obligazioa.

13. *Bilbao et le commerce européen au XVI^e siècle. Thèse de doctorat d'Histoire préparée sous la direction de M. Francis Brumont*, Université de Toulouse II-Le Mirail, 1997 (fotokopiatuak) I, 129-132; eta II, 338-354 (kontsulta erraztea Aingeru Zabalarri eskertzen diogu).

14. Oztopo honen kaltegarritasuna, Bizkaiko Batzar Nagusiek erregeari askotan eskatzen zizkieten baimenek erakusten digute. Ik. ENRIQUEZ FERNÁNDEZ, Javier; GARCÍA ARBAIZA, José Ignacio; eta ROYUELA ZUMARRAGA, José Esteban: *Juntas y Regimientos de Bizkaia. Actas de la Tierra Llana. Tomo III. Mayo 1576-1583*, Bilbao: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1994, 116 (1576); elikagaien kanpotar inportatzaileen alde soilki... teorian.

15. PRIOTTI, aip., II, 109-114, passim. Baionako burgesiak egindako Laburdiko arrantzaren finantzaketaz ez gara orain arduratuko.

doguneak Bilbo eta Donostiaren alde zirela, batzutan Frantziara ez oso legal-ki bialdutako burdina, eta burdin kontrabandorako XVIIIgheko asmakeriak, helburuak arrantzatik kanporantz hedatzen zaizkigu¹⁶.

Goazen orain hurrengo abantailetara. Itsasoan arriskua edonoiz ager liteke, eta ba dakigu bilbotarrek onartzeko prest zeudela, finantzabide fiduziario-modernoekin egin zuten bezala. Jakina, gutxitzekotan zeuden, gehienez salgai- eta inbertsioen aniztasunaz. Horretarako arrantza-mailegua egokia zen ere. Aukeratu ditugun lau adibiderik adierazkorrenetan, emaeleek eskeintzea nahiago zuten dirutza 127½ dukat zen, objetiboki garestia baina galduko balitz pertsona nahiko aberats horien porrota sortaraziko ez zuena; eta emandakoa, gutzizkoaren %10-15aren artekoa. Dirudunenek unti ezberdinetan aldi berean partaide izan litezke, arrantza kanpainan aritzeko bitartekaririk gabe, itsason-tzi guztiak aldi berean galtzea praktikoki ezinezkoa zelako. Noiztenka, horniketamerkeek merkataritza kanpoko pertsonak erakartzen zituen, kapitala errezki, ziurtasun eta aterakin lodiz eta epe laburrean (urte erdia edo) etxeratzeko asmoz; era berean, inbertsio "gordetzaille"en erdua diren alarguntsetariko bat-baina ezagutzen ditugunengatik kontsebagarritasun hori zalantzetan jarri beharko genuke¹⁷. Azkenez, Bizkaiko baserrien eta itsas-artistauen ekoizpenari eta tokiko garraioei bultzada ematen zitzaien eta, ororkorki, hiriko eta inguruetako ekonomiari ere, tratuak finkatzeko zetozen agenteengandik eta horniketa-hustuketa egiten ziren bitartean tripulazioak geratzeagatik, bederen.

Prozedura horri esker ala ez makalautan jarduten zuten ondoko hiru taldeak aurkituko ditugu, ekintzak haientzat zeukan garrantziaren arabera. Has-teko, itsas merkataritzatik kanpokoak, noizean behin dirua kokatzen zutenak. Adibidez, Jaurerriko idazkaria izango zen Diego de Abendaño, eskribaua eta Korrejimenduko prokuradorea, lanbideari eta leinu ahaldunakoa izateari esker eskuratzen zituen errentez oso negozio ezberdinetan aritzen zena¹⁸. Bigarre-

16. Diru-igorpene eta epe laburraren baltzua: B.K., 636-245tik 254ra (1590), Baionako "La Esperanza" (sic) makailuntzia hornitzeko. PRIOTTI: aip., I, 184; hugonote gerrengatik Nantesko ekoizpena eta esportaketa beheratu zirenean, kontrabandoak itsas merkataritza (nolanahi hori baitda) mantentzen lagundu zuen. ZABALA URIARTE, Aingeru: "Quelques informations sur la flotte du Labourd en 1654/1657", *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, IX (2000) (kontsulta egileari zor diogu). Ik. B.F.A., Administratiboa, Batzar Nagusiak, Gipuzkoa, 24. lib., 43-44 (1592): Laburdiko lekukoen kolusioa Portugaleteko (ia seguraski) burdin-kontrabandisten aurka ez aitortzeko. Id., Notariak, Korrejimenduko Protokoloak, 485-197 (1590): Aparicio de Ormaecheke (ik. beherago, 35. ohar aldean) Donibane Lohitzunera bidalitako platinak eta barratxoak. Bilbok ez zituen arrantza-burgesia laburtarrearekiko tratuak monopolizatzen (ik. B.F.A., Notariak, Gernikako Protokoloak, 309-388 [1611]: lekeitiarrekin); gainera, XVIIIghean bederen, Bilbokoak leihakideen trafikoan sartu zen (id., 255-250 [1660]: Gabriel del Barco, Bermeo eta Lekeitioko makalau-salmentan).

17. B.K., 636-245tik 254ra (1590), guztira 2.550 dukat eta 10 inbertitzaile; 87-243tik 251era eta 253tik 258ra (1591), hurrenez-hurren 1.798½ eta 9 eta 1.020 eta 6; 603-150etik 152ra eta 159 (1598), 605¼ eta 4. Hildako senarraren kudeaketari jarraitzen ohi zitzaizkion ere. Honela Mari Sanchez de Gueldo, Donibaneko makalauailarri hornitzailekide izanez gain arraina Bizkaitik banatzen zuela (id., 87-236 eta 237 [1591]: lohi-tzundarren bermea, hau da, egitezo baltzua osotzen zuten; 2702-62 [1586, Gamiz]...).

18. B.K., 499-15 (1595): lana, okela eta etengabeko gerretarako armagintzak eskatzen zuen laurua ematen zituzten behiak erosten, ia seguraski Galdakaon zeuzkan kontaktuen bidez erdirakoan ipintzeko; 1603-151 (1598): Donibaneko makailuntzi baten hornitzailekidea; 938-251 (1607): Ribadaviako ardoen eroslea, etab.

nez, arlokoak, edo askotan partaide zirenak. Eskarien arabera elikagai-bitartekari ospetsu batzu beste motako salgaietaz arduratzen ziren. Pertsonai hauetariko hiru aukeratu dugu. Martin de Belarrok Gipuzkoko Getariatik Baionaraino arrantza-hornidurarako akordioak egin zituen. Gazikiak eta bale-koipeak Bizkaiko barrukaldera bidaltzeko sareetan mihiseria sartzen zuen ere¹⁹. Aldiz, Laburdiko maestreen ongi ezaguna zen Pedro de Adaroren ekintza Gali-ziatik Portugaleraino heltzen zen, makalaua eta burdinak eskeiniz ardoak eta ezagutzen ez ditugun salgaien truke (espeziak ote barne?), ez dakigu ea laburtarren bitartekaria izanez ere²⁰. Sancho de Careagak bi mail ezberdin horietatik lan egiten zuen, horniketari esker Adaro bezala Lisboaraino helduz eta Francisco de Noviaren xehekari ertaina izanez²¹.

Sancho del Barcoren ohizko kidea zen Noviak hirugarren taldekoengana eramaten gaitu; hau da, berez eremu oso ezberdinez arduratzen zirenak, gerrak edota eskaintza-eskaeren murrizketak ohizko produktuekin problemak sortarazten zituztenean saltzeko errezagoen bidez (gazikiak, adibidez) zirkuitoak mantendu nahi zituztenak: hola Barcotarrak. Franciscoren itzala erakutsi ditugun gune guztietara heltzen zen: bilbotar askorengana, Ipar Europako mihiseak, ezkoa eta laboreak ekarriz; Laburdiko kostalde osora, horniketa portugesekin eginda; Soriana, Frantziako ehun finak eskainiz artilea ekartze-ko; Mesetan zehar pasatuz -oraindik ez dugu aurkitu zerez-, Indietarako irten-bide derrigorrezkoa zen Sevillara; eta Kanariar irletaraino²².

Berez, uharteok Flandres baino askoz ekoizpen gutxiago zeukaten. Horregatik pentsatzekoa da, zergatik ziren gai hainbeste bilbotar interesatzeko; horien artean, egiteko baltzuan osotzen zuten Novia, artile eta mihisei ezker Hamburgoraino heltzen zen Juan de Alvear Salazar²³, Sancho, eta honen eta Hortuñoren "morroia" (F)Hernando de Taborga²⁴. Balio erantsi handiko ardo bereziak eta azukrea -eguneroko gozogarría ezta zen- ekartzen ziren; bezeria

19. Id., 1260-41 (1579): koipe salmenta ingelesei; 636-248 eta 255 (1590), 87-247 (1591). Bilboko errejidorea (aldagarria aldatuz, zinegotzia) 1588an izan zen (id., 1408-43). Mihiseak: hurrenez-hurren Gipuzkorako eta Gaztelarako bide nagusien alboan zeuden Galdakaora (id., 636-28 [1588]) eta Zeanurira (id., 1408-43 [data bera]).

20. Id., 1003-52 eta 66 (1590): horniketa Hendaiatik Donibaneraino. Id., 436-209 (1594): Galizia; 1603-81 (1598): merkatal-agente portugesar emandako ahalordea, A Coruña-ko epaitegian zeukaten Donibane Lohitzungo untzijabeen aurkako kobratze-azuzian.

21. Id., 458-92 (1592), 437-86 (1594); id., 822-59 (1593): Francisco de Noviaro erositako garagarra, abel-elikadurarako eskari handikoa zena.

22. Hurrenez-hurren: id., 458-66 (1592), 436-44 (1593, ezkoa) eta 140 (garia); 87-250 eta 264 (1591), hauetariko ziburutar batekin tratua 1595ean errepikatuko zuen (499-52); 436-54 (1593); 1603-119 (1597, Segovia), 2235-8 (1597, Cuenca); 437-74 (1594); 499-25 (1595).

23. Id., 87-269 (1591): artile eroslea Errioxan; 499-92 (1595): Laredon gerragatik eragoztutako untzia.

24. Edo menpekoea negoziotetan, gaztaroen "lanbide heziketan" eta agente gisa gero (id., 436-399 [1595]). Bere kabuz posizioa lortu arren, Taborgak Sanchoen kideetasuna zainduko zuen; bi familien arteko loturak luzaro iraundu zuen. Etxebizitzaren hurbiltasun fisikoak hestutu egingo zuen, aldi berean hain hedagaitza zen hirian etxe duina lortzeko problemari konponbide merkea emanez (id., 1603-87 [1598]: Hortuñoren Somerako etxetariko sala baten mailegua) eta dependentsia areagotuz.

ugaria ez zenez, bidaia noiztenka egitearekin asko asetuko zen²⁵. Tratuen hirugarren saiheisa portugesak ziren; hauetaz goian esandakoak hementxe balio digu²⁶. Eta kontrabandoa azken azalpena balitz? Inguru horretaz inondik ez dugu salaketarik aurkitu. Salgaiak Indietara Sevillan egindako erregistropean joan behar ziren; baina hain luzea zen Atlantikoaren zeharkaldia baino lehenago azken hornimendu-geldialdia -Gaztelako Koroaren lurraldeetan-Kanariarretan egin liteke...

Barcotarren hurrengo belaunaldiraino heldu gara. Orain arte erakutsi dugunaren eredu bikaina Hortuño du. Sanchoekin ala bere kabuz, familiaren aurretikoez errotutako heredentzia zaindu egin zuen, lehortzen hasten zen eremutik sasoz atera egin zuen (partez, ea emankorra berriro bihurtuko zen) eta ez hain ekoizkorrek baino seguruagoak agertzen zirenetan landatu zuen. Itsas munduan murgiltzeko aitari jarraitu zitzaion lehendabizi; laster bere egitura eraiki zuen, bakarka aritu beharko zuenerako ondo trebatua izateko²⁷. Abagune zailak Europa Atlantiarraren trafikoa zalantzetan ipintzeagatik, ulermen zorrotzez inbertsioak arbasoentzat guztiz bigarren mailakoak ziren sektoreetan ugaltu zituen: mozkinak bermatzen zituzten mailegu-emateak eta abelgorri-hazkuntza, baserriarrei erdirakoan uztea -jabeentzat hain probetxagarria zen bide kapitalista- erabiliz²⁸. Gainera, bi gune garrantzitsutara pertsonalki eta goiz abiatu zen, kontaktuak tinko uztera. Gero aztertuko dugun amak egindako dohaintzaren urtean, 1595ean alegia, Sevillan aurkitzen dugu; bizkaitar batzuren finantza-bitartekaritza haren ardura bakarra izan balitz, agertzen zaigun legez, aro zail hartan Bilboko kontrola uzteak ez ziokeen merezitu²⁹. Dena den, ba dirudi Ameriketako eta Portugalgo bidatzak (eta Kanariaskoa?) Britainia-koa bezain erakargarriak ez zitzaizkiola, agian sendiaren ikuspuntutik Sanchoaren ardura aski izateagatik, eta Nantesera joan egin zen ere.

Aitaren tradizioari ahaleginak gehituz, posizio bikaina lortu zuen: trafiko ugaria ez ezik, hango auzotasuna eta jaurgu bat zituen³⁰. Estatus eta errenta britainiarrak -beraz, handik eragile izateko gaitasuna- edukitzeko laguntzaile preziatua emaztea zitzaion, dotean sartutako eskubideengatik eta berezko ekintzaz³¹. Egia esanda, senitarte hurbil osoa enpresa moduan anto-

25. Ik. Tenerife eta Gran Canariarako pleitamentu adierazkorra B.K.an, 436-362 (1595): "San Juan" unziaren erdiaren jabea Portugalgetako Juan de Larrea maestre bera zen; bestearena, Sancho eta Lope de Basurto Acha, Pedro de Aguirre eta Pedro de Sojo horren mailakideak; Sancho, guztien lokarritzat agertzen zaigu.

26. Partaidetza: id., 436-329 (1595).

27. Id., 86-221 (1590); id., 87-77 (1591): elkarrekiko ordainketa.

28. Id., 87-212 (1591), 1603-57 (1598). Id., 2702-84 (1586): Bartolomeren aldeko erdirako-tratua, krisialdia jada nabarmena zenean.

29. Id., 436-317, 388, etab.: bere koinatuaren eta beste merkatari edo partikularren izenean, Perutik joaleek bidalitako metal balioitsuak eskuratzeko, dudagabeki artesia eskuratzu.

30. Id., 499-60 eta 80 (1595). Ondasun higiezinak esker auzotartasun anizkuna ahalezkoa zenez, aldi berean Bilbokoa zuen. Egonaldia, 1583an edo (id., 832-33).

31. Id., 271-67 (1593): Hortuñoren ahalordea doña Juana de Rozas (Rocas) emazteari, Nantesen ze-goela, Yvon de Rocasek utzitako Britainiako errentak kobratzeko. Sendi honen genealogia eta ogasuna ez ditugu oraindik sakonki ikertu.

latuta zegoen. Hortuño Andaluziatik etorri ondoren, Domingo, hirugarren anaia, Sevillara joango zen³²; gure protagonista Sanchoekin salerosten hasi zen eta honi esker arrantzan barruratu zen³³; eta, batez ere, eragozpen guztien artetik garaile pasatzen zen bigarren transformaziozko burdinaren banaketa handia bereganatu egin zuen, Aparicio de Ormaeche doña Maria Ortiz del Barco haren arrebarekin ezkondu zenetik. Handizka edo erlatiboki txikizka (xehekarientzat eta, uste dugu, eskulangileentzat), Apariziok Jaurerrian zehar eta Bilbon saltzen zuen,aldi berean maileguak emanez, zoritxarrez ea meatzari edota burdingileen ekoizpenaz jabetzeko edo hestutasunean zegoen bezeria mantentzen laguntzeko zen izkribuetan azaldu gabe³⁴; haren burdinzamak Europa Atlantiar osora heltzen ziren, Laburdi ahaztu barik³⁵. Zeren bila azaldu behar ote dugu? Dena dela, dakigunaren arabera arrantza eta mihisERIA ez zituen zuzenki ikutu, ezta Barcotarren burdin landua, eremuen banaketarako “familia itunbe” bati esker etekinik lodienak denek atera zitzenen.

Beste artikuluaeren sujetoa izan daitekeen ahaideriak eta kideak, bai Hortuñorenak baita Ormaecherenak ere, bien potentzialen hutsunetxoak betetzeko gai ziren; besterik ez balitz, haien aurrean elkarlehia gogorrean ez ziren arituko. Eduki, ba zeukaten Barcotarrek benetako botere ekonomikoa. Gizarte- eta politikorako jauzi kualitatiboa egitea ez zen erreza. Iker dezagun nola lortu zuten.

GIZARTE- ETA POLITIKA-ESTRATEGIAK

Jatorriz, Barcotarrak Abantoko Kepa Deunaren kontseilukoak omen ziren³⁶. Horko udal artxiboa ez da gai erakusteko noiz heldu ziren Bilbora. Hemengoak Sancho del Barco bat³⁷ 1464an ezagutarazten digu. “Negozio-gunea” zen Santiago kalean, laster era adierazkorraz Dendarikale (“Tenderia”) zeritzonean bizi zen; hurrengo berrogeita hamar urteetan, bederen, fami-

32. Sevillarako zori handiko polizak: id., 1603-73 (1598), Diego Pereira portugesak (ik. 8. oharra) pleitaututa (Domingo aipatzen da); id., 93: polbora (defendagarria) erosteko diruagatik.

33. Untzia erosit eta guzti; hori bai, haren koinatuarengatik izan zitekeen, saltzaileak honi burdinak erosten baitzizkioten, Portugalera bidaltzeko (id., 436-395 [1595]; zorrengatik bilbotarrekin tratutan egoten zen Ziburuko Miqueto de Zuibarrena izan zena).

34. Barakaldokoentzako emate ugariak hipotesia laguntzen dute. Dirutza jartzeko bilbotarren elikagai freskoen jakitegia zen Txorierrri harana, Gaztelarako bideen ondoko herriak eta Gipuzkorakoaren alboak nahiago zituen, Bilbotik 15-20 kilometrotako erradio barruan (id., 636-119 [1585]; Galdakaokoei, burdinez itzultzeko; 1157-69 [Zaratamo], 86-29 [Gueñes], 86-181 [Lemoa], 86-193 [1589, Lezamako burdingilei], etabar).

35. Id., 87-108 (1591, Flandresera), 832-39 (1583, Hortuñorekin Nanteserako horniketara), 1003-73 (1590, Portugalera), 1260-40 (1579, gero eta garrantzi gehiagozko bezeroa izango zen Ingalaterrara), 2702-50 (Frantziara, hemendik batzutan habak ekarriz [436-72]), 36-198 (1594, Irlandara, hemengo arranen truke argi aipatzen dela), 1033-88 (1590, Ziburua), 271-54 (1593, Donibane Lohitzun).

36. Id., 938-322.

37. Pertsona izen hori haiengan belaunaldiz-belaunaldi transmititzen zen. Ik. behe-rago, 49. oharren inguruan.

lia ez zen handik aldatuko³⁸. XVIgn mendean uriko bi auzo ezberdinetera abiatu ziren: Somera kaleko etxeetara, non Hortuño eta senideak luzaro ezarriko ziren, eta Areatzara, alogatzeko etxebizitzak eta lonjak eraikiz³⁹. Ordurako, Santiago parrokia alboan zegoen Azoka Plaza “Zaharra” bihurtu izan zen, salerosketa eta orokorki eguneroko bizitzaren ardatza izango zen “Hiriko Plaza”ren alde, gauregungo San Anton eliza eta Erriberako Merkatuaren artean. Behin itsas trafiko etengabea sendotuta, biztanleriari bide honetatik elikagaiak gero eta ugariagoki heltzen zizkion; beraz, Dendarikalera abiatzen zen Txoriherri baserritarratik zetorren bideak garrantzia galdu zuen, baita ondoan egoteko komenigarritasunak ere. Someratik merkatalgune berriraino zuzenki joaten zen, eta lbeni ibia baino sakonera eta luzeera gehiagozkoa izateagatik untzigune nagusia bihurtzen ari zen San Nikolaserantzako irtenbidea erreza zen ere.

XIXgn mendeko berreraiketak eraikinen itxura erabat aldatzearen, azalpenak orubeek erakusten dizkigute. Someran ez dira Tenderian baino zabalagoak; sakonagoak bai, Erdi Aroko etxeek harresiraino zeuzkaten hutsuneak eraikuntzarako erabili zirelako. Salgaietarako lekua hedatu zen; agian, baita pertsonentzakoak altueraz eta balioz (diruz, beharbada tankeraz ere bai). Hortuñori 1595ean egindako dohaintzan⁴⁰ doña Agueda de Aranak bigarren “sala” edo etxebizitza nagusia 1.100 dukatetan baloratu zuen: bai dote erakargarria! Jakina, tasazioak konbentzionalak ohi ziren. Bilboko etxe-merkatua ez zen elastikoa, uriko azaleraren urritasunagatik; prezioak erizpide honi jarraitzea ez zen aldi hartakoa; alarguntsak eskuratuko zuen urteko saria inbertsio seguruetan ezarritako kapitalaren antzekoa zen⁴¹; azkenez, baina ez azkena, sinbologiak baldintzatzen zuen, senitarteari zegokiolako eta amarekiko betebeharra materialki azaltzeagatik, baserritar dohaintzetan gertatzen zen bezala.

Ohorea eta eskubideak: horra hor pribilegiotan oinarritzen zen gizarteko funtsezko kontzeptuak. XVIgnaren hasierako erroldetan Sancho del Barco-en etxeak suteagiak ziren, hau da, unitate fiskalak; notari izkribuetan sendiaren gizonetzakoak “auzo” gisa definitzen dira. Laburki: tokiko eskubide politiko osoen jabe ziren, izendatzeko eta izendatuak izateko. Ez zituzten alferrik galdu. Hirurogeita hamar urtetan, 1542tik 1612rarte, Barcotarren hiru famili-buruak (belaunaldiak aldatzen ziren heinean) udalera heldu ziren; ospe eta kudeaketa gaitasunari esker Bizkaiko Uri eta Uribilduen Batzarretarako Bilboko ordez-

38. ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, Javier; HIDALGO DE CISNEROS AMESTOY, Concepción; LORENTE RUIGÓ-MEZ, Araceli; eta MARTÍNEZ LAHIDALGA, Adela: *Repartimientos y foguera-vecindario de Bilbao (1464-1492)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza (Fuentes documentales medievales del País Vasco, 71), 1996, 49 (1464); egile berak: *Foguera de las villas de Vizcaya de 1514*, Donostia: Eusko Ikaskuntza (Fuentes documentales medievales del País Vasco, 79), 1997, 68 (“Sancho del Barco, el moço”).

39. B.K., 363-404 (1595), 544-157 (<1656).

40. Id., 363-404. Beste berezitasunak gero aztertuko ditugu.

41. Emandako ondasunen %3,56, epe luzezko zorren antzekoa; higiezinaren %6,38 (errealitatearekiko fidagarritasuna eskasa iruditzen zaigu).

karrikideak ziren; eta, adierazkorrena finantza aldetik, Hortuñok eta Apariciok Mandojana Zarate korrejidore berriari kaudimena eskeini zioten, aberastasunagatik eta, batez ere, “llanos y abonados” (‘bandogabeak eta ongi errotuak [aberastasunaz eta gizartean]’) zirelako⁴².

Oraingoz, ez besterik. Jaurerriko Gobernu Orokorrean Barco erregidore eta diputatuak ikusteko 1638rarte itxaron egin behar dugu... eta hurrengo 130 urteetan abizena sarritan errepikatuko zen, erret-mesedeak soilik ematen zuen “don” tratamendu ohoretsua lortuta⁴³. Aldiko berbetan, erderaz: “padre mercadero, hijo caballero”, batez ere krisialdia garaitu ondoren beste kideekiko urruntasuna handitu zutelako (sendiak azken zatia, “nieto pordio-sero”, ez zuen osotuko!). Ez dugu uste zergati bakarria igoera ekonomikoa zenik. Barcotarrek Foru Erregimenduan sartu baino aurre-aurreko XVIIgn mendeko lehengo hirurdenean Bizkaiko egitura politik-administratiboari aldaketarik funtsezkoena gertatu zitzaion. XVgnaren amaieratik (dirudienez), bi batzar ezberdin egon zen: hogeita bat uri eta uribilduetakoa, eta elizate edo Lur Edegiarena. Uriena Bermeo, Bilbao eta Durango buru zireneko hirurdenetan antolatuta zegoen; hobe esanda: banatuta. Barruko gatatzak gainditzeko ezgai izan zenez gero, bai egitura aldetik baita ekintzarako ere sendotasun askorik ez zuen inoiz lortu, haren antagonista gobernuko ereduak sortarazten zuten bitartean. Barruan, Bermeoren kalterako, Bilbok gero eta eragin gehiago lortu zuen, elizateenarekin aurrean ia solaskide baliogarri bakarria izan arte; hortik Barcotarren tokia haren udal erregimenduan, urian eragile izatearenaz gain. XVI. azken hamarkadetatik bi batzarren elkarganatzeko-prozesua geldiezin zela argi zegoen, geure familiakoek ezkontza eta -susmo dugu- goiboterean sartzeko ondasun higiezinaren estrategiak burutzen zituzten artean. Behin-betiko batzarren ituna bermatu zenerako, 1631ean, lortu egin zuten⁴⁴. Orduko matxinadaren azken keak ufatuta, Bizkai osorako betearazlea izango zen erakundean eragozpenik gabe sartu ziren, jatorrizko kokaleku eta interesetatik urrundu gabe, Foru Aldundiaren egoitza iraunkorra Bilbo zelako.

42. B.F.A., U., B.U.A., Aktak, 36. liburua. SESMERO CUTANDA, Enriqueta; ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, Javier; eta GARCÍA ARBAIZA, José Ignacio: *Juntas y Regimientos de Bizkaia. Actas de Villas y Ciudad. Tomo I. 1536- Octubre 1571*, Bilbao: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1994, 186 (1542); Martín García del Barco, Bilboko fiela zena. GARCÍA ARBAIZA, José Ignacio; LORENTE RUIGÓMEZ, Araceli; eta HIDALGO DE CISNEROS AMESTOY, Concepción: *Juntas y Regimientos de Bizkaia. Actas de Villas y Ciudad. Tomo II. 1571-1582*, Bilbao: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1994, 295 (1577); Bartolome, uribilduko erregidorea. Kaudimena: LORENTE RUIGÓMEZ, Araceli; HIDALGO DE CISNEROS AMESTOY, Concepción; GARCÍA ARBAIZA, José Ignacio, eta ROYUELA ZUMÁRRAGA, José Esteban: *Juntas y Regimientos de Bizkaia. Actas de la Tierra Llana. Tomo V. 1591-Noviembre 1595*, Bilbao: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1999, 361 (1595). SESMERO CUTANDA, Enriqueta; ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, Javier; HIDALGO DE CISNEROS AMESTOY, Concepción; MARTÍNEZ LAHIDALGA, Adela; GARCÍA ARBAIZA, José Ignacio; eta ROYUELA ZUMÁRRAGA, José Esteban: *Juntas y Regimientos de Bizkaia. Actas de Villas y Ciudad. Tomo III. Agosto 1589-1600*, Bilbao: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1999, 45 (1590); Bartolomeren anaia eta Gasteizko auzoa zen Sancho García del Barcori ahalordea, Foruen aurkako testu baten zentsura praktikan jarriarazteko; erakunde horientzat Jaurerriatik kanpoko famili-kontaktuak oso erabilgarriak -eta erabiliak- izan ziren.

43. AREITIO Y MENDIOLEA, Darío de: *El Gobierno Universal del Señorío de Vizcaya. Cargos y personas que los desempeñaron. Juntas, Regimientos y Diputación*, Bilbao: Junta de Cultura de Vizcaya, 1943, 181.

44. Lur-ondasuna: ik. 39. oharra eta B.K., 2236-71 (1543).

Lur ondasunetan merkataritzaren irabaziaz ipintzea, diruz komenigarria zitzaizen, jakina. Merkatal tratuek erangindako hazkundeaz probetxatzeko hiri-ko akura-etxeak Artekalen eta San Nikolasen zituzten; Areatzako lonjak unti-zerbitzurako, zamaketan eta banaketan aritzeko; Atxurin etxe bat, errebal honetatik heltzen zen Gaztelarako bide nagusiaren trafiko alboan; Abandoko eta Begoñako ortu eta mahastiak, XVI.aren amaierarte hedatu zen elikatze-eskaeragatik⁴⁵. Bestalde, goi nobleteriak -handikiek- higiezinaren jabetza egitura finkatzen ari zirenez, burgesiarentzat ba zen aldia etekinak jartzeko onuraz eta ohorez atzetik ez gelditzeko. Eta hemen ideiek moldatutako jokaeretara urratsa egin dugu. Aukeratu dugun epe kritikoa Jaurerriko eliteak ideologia berezia moldarazten, ordaintzen eta inposatzen ari ziren. Laburki, bizkaitar guztien jatorrizko kaparetasun orokorraren bidez ekonomiarako ezinbestekoa zen lan pertsonala noblezasunarekin bateragarria zela legezatu zen, erresuma peko beste lurraldetan gertatu ez zena. "Foru errejimenaren" egokitasuna ekoizpen eta salerosketa sistema mantentzeko, gizarte gatazkak ekiditzeko edo bederen gutxitzeko, baita joale txiro baina pribilegiatuentzako abantailak oso ezagunak dira. Orain, pentsamoldea gure protagonistek nola barneratu zuten ikusi nahi dugu.

Goazen Bilboko Hiriko Plazara, 1572ko uztailaren arratsalde baten hasieran salgaiz eta saleroslez beteta zegoela. Solaskidea Juan de Larrea izango zen⁴⁶. Auskalo zer zor edo desadostasunagatik -ez zen idatzi: zer gerta ere, negozianteen trapu zaharren garbiketa, ahalik eta pribatukiago- irain astunen errituala ahoz eta keinuz hasi zuen, oso portaera kodifikatuzko gizarte hartako ogibide eta gizarte mail guztietako lekukoek ulertzeko, kaltea heda zezaten: «haziendose [*<'asirse', hartuz*] de su barba [*gizontasun fisiko eta animi -koa adierazteko*] estaua deziendo al dicho Sancho que le saliese de la dicha plaza [*ezagunek elkarbanatzen zituztelako*] y que le auia de pagar», deituz «logrero, hijo de logrero, bellaco, billano»; Sanchoen mihi oztopatua arindu zen eta «le respondio que el no tomara con un ynfame apaleado como el; y a esto le respondio [*Juanek ...*] que mentia como bellaco ynfame e escupiendole al rostro y con esto [...] se apartaron»⁴⁷. Larreak zalantzatan lau motako ohoreak jarri zituen: pertsonala, kaxkarkeriaz salatuz; estamendukoa («bilano safio [*sic*]» izatea), izaera eta ekintza pertsonalak behekerizkoak zituela esanez; profesionala, are grabeago familia-"enpresa"-ren izena lukurkeriaz zikintzearen; eta, hemen garrantzitsua zaiguna, leinuarena, jatorria ezbaian jarri zelako.

45. B.K., 2236-71 (1543, Artekale, Abando, Begoña), 436-98 (1594, San Nikolasen erositakoa), 436-382 (1595, Atxuri), 1357-61 (1592, Areatza), 1260-32 (1572, baserria Zamudion). XIX.nerako errentagarritasuna %2,5an kalkulatu egin dugu, kapitalena baino txikiagoa izan arren oso segurua eta abaguneen arabera errezi birbaliozkoa zela; emaitzak estrapolatzen ez gara ausartuko.

46. Barcotarrekin erlazionaturiko izen honetako hiruengandik, onargarriena zilagilea dugu, iraintzailea bezala jatorriz Txorierri haranekoa zelako. Ipar Europako ehunak -emaztea mihiseri finaz arduratzen zen (B.K., 845-74), ezkoa eta, dirudienez, kobre saltzen zituen, agian Sorriako artilea esportatuz (id., 2659-340, 448 eta 655; 2643-123, 2224-326, 882-94, 335-62).

47. Id., 938-322; gehienbat analfabetoa zen komunitatean sinatzen ongi zekiten berbetan.

Lehenbiziko biek ez digute konnotazio interesgarriak eskeintzen; azkenek, bai: Bilboko itsas burgesiak ez sortu baina sakonagotu zituenak. Barcotar batzuren homonimia aipatu egin dugu. Garai hartako izen propio erabilgarrien eta lokatibo-deituren urritasuna ez zen arrazoi bakarra, gaitzizenez elkar eza gutzen zuen gizartean eguneroko bizitzan deiturak erabiltzea bereizgarria zelako (izkribuetako mundua ofiziala zen, beraz askoz formalagoa). Erdi Aroan leinu noble askok belaunaldiko etzekoen nagusiari izen berezia, benetako ezau-garri eran, ipintzen zion. Burgestutako Goi Aro Modernoko haien merkatal adarrek ohiturari jarraitu zioten, eta batzutan aberastasuna lortzen zuten kideek imitatzen zituzten. Printzipio bera zeukan eta askotan osagarria zen alternatiba, belaunaldi bakoitzean pertsona-izen ezberdina baina arrunta ez zena ematea zen, hori erabiliz ezaguna izateko⁴⁸. Orokorki, estatus jarraipena eta familia barruko deferentzi pribatuak ez ezik, "sendi-enpresa"ren iraunkortasuna (kontzeptu hura erabil ba dezakegu), merkatal erlazioetan hain garrantzitsua izango zen izen ona, bermatzen zen.

Kaparetasun orokorraz gozatzeko ez ziren aski ez ospe pertsonala, ezta aberastasuna ere: leinua eraiki behar zen; ez Erdi Aroko feudala, jakina, baik eta gizarte korporatibo estamenduzkoa. Horretarako erreferentzia moduan behar zen oinetxea Abantoko Barco de la Barrera izango zen. Bilbora heldutako kanpo salerosketakide askok bezala, gure pertsonaiek ez zituzten sorterriaren kontaktuak galduko, kapitalak ezagunei (hau da, bermez) maileguan edo zentsuan emateko edota eragipen gizarte-politikozko sarea antolatze-ko⁴⁹. Enkarerrietako kontseiluetan, foru elizateetan bezala, alabak primuak ahal izan baziren ere gizonezkoen lur jabetasunaren heredentzia-lerro zuzena inposatzen ari zen, sortetxerik nagusienetarako bederen. Sanchok onartzen zuen ere. Bestalde, Errenazimendua Bizkaira heldu izan zen ere, frogatzailea -sarrigi alderdikoia- zen historiarekiko gustua ekarriz. Sanchok bere oinetxea Portugaleteko prebosteak eta Bilbon Marzana aldetik jabeak ziren Muñatonesko handikien menpekoea izan zela harro -eta auskalo zein neurritan egiazki- esan zuen. Holako manupea ez zuen menekoen ohorea gutxitzen; areago-tien zien, boteretsuen ahaidieran sartzean, urrunean izan arren, hauen gizarte-birtuteen kideak bihurtzen zirelako.

Auzian Del Barco bere odol garbitasuna ("kristau zaharra" sortzez eta jatorriz izatea, alegia) susmorik gabe uzteko arduratu zen, zeharkaki Inkisizioa ahalik eta urrunago jarri. Gaztelako erresumaren jende askori arrangura eragiten zion baldintza hau Bilboko hauzagaiek frogatu egin behar zuten⁵⁰. Erre-

48. Adibidez, Tristan de Aboitz Leguizamon-ak, Erdi Arotik erabilitakoa (hiru belaunalditakoak XVIIganean: id., 87-233 [1590], 3557-13 [1659], 3393-6 [1684]); Aparicio de Ormaecheke seme homonimoari amaren Jugo bigarren abizena erantsi zion (id., 3391-2 [1639an aipatuta])... XVIIganean ezberdintzeko beharrezko-tasunak eta agintarien kontrolatzeko asmoak bi deituren sistema sortarazi zuten. Bigarren kasukoak, Bar-tolome eta Hortuño berak. Aititegandik ilobagana pasatzen ohi zen.

49. B.K., 499-175 eta 176 (1595): Sancho del Barco 9 obligazio Abantoko apaiz ospetsuari uzten zion, azken honek, agente moduan, erlijioaren eragin moralaz baliatuz kobra ditzan. Auzian, odol garbitasuna eta jatorria frogatzeko eskualdeko lekuko askok lagunduko zuen Sancho.

50. B.F.A., U., B.U.A., Dekretuak, 6 erreg. (1562).

zelurik ttipienak kontseilutik kanpora bota lezake; biztanleri zurrumurrukoiaik lau haizetara ezagutarazia eta atzerritarrek entzunda, tokiko merkatalgoaren ospea zalantzatan jar lezake -kristaua ez izanez, nola fidagarria?; eta, susmagarri bakarria izango ote?-, eta hiriko udalak beste kasu garaikidetan beldur hau barregarria ez zela erakutsi zuen; eta Inkisizioari itsas trafikotan susmoka aritzeko atxaki arriskutsua emango lioke, erresumako muga fiskala Euskal Herriko barnekaldean zegoenez eta, horregatik, gure lurralderako salgaiak aduana zergetatik salbuetsiak, itsasbidetatik heltzen zenaren portzentia galanta merkataria nagusiek zuzendutako kontrabandoaz banatzen zelako.

Fedea eta boterea aldi berean erakusteko, susmo guztiak urrunduz eta bizitza ondoko mesedeetan berreskuratzeko posibilitateaz gainera, Barcotarrek erlijiozko kanpo-ikurretan eskuzabalki gastatu zuten. Hortuñok Bilboko lehengo parrokia zeneko debozio handiko Begoñako Andra Mariari zera egin zion: «un dosel de terçiopelo carnesi [sic] con sus caidas de tela de horo y franga de seda y horo y borlas, que tiene enmedio la ymajen de Nuestra Señora goarneçido alrededor de horo y con las armas del dicho Hortuño del Barco, y ademas dello tiene sus palos dorados»⁵¹. Senideen arimen alde nobleziaz otoi egiteko, Barcotarrek etxea eta lurrak zeuzkaten Atxuri auzoko Giza-kunde komentuan kapera eraiki zuten⁵².

Leinuak aberastasunarekiko eskaerak zeuzkan, egoera mantentzeko eta, ahalezkoa balitz, goratzeko. Hauen artean Jaurerriko nobleen eta noble-burgesen artean arinki hedatzen ari zena “lotura eta maiorazkoa” zen. Hitz gutxitan: hark balio iraunkorrezko ondasunak -gehienbat higiezinak- sendiari betirako eransten zizkion (egitez, erakundeak XIXgna arte iraungo zuen), lerro nagusitik ahalik eta sarriago; honetarako bigarrenak primutasun eta herdentzia arautegi zehatza inposatzen zuen, ia salbuespenik gabe gizonezkoen alde jada abizenen igoerle nagusiak eta familiaren burutzat hartzen zirelako. Bilboko itsas goi burgesiaren erronka zertan zetzan: ogasuna nola lotu familiaren lerro nagusiar salerosketen gorabeherak gainditzeko ezinbestekoa zen erabilgarritasuna mantenduz; ez ditzagun ahantz garaiko arazo ekonomikoak.

Bartolomeren alarguntsa zen doña Agueda de Aranak, «deseando bibir [...] con algun descanso sin tener cargo ni cuidado de cobrar y administrar sus bienes», ordurarte pertsonalki egin zuena, eta Hortuñok, beste seme-alaben baimen isilaz, konponbide berezia asmatu zuten: emandakoa saltzeko edo hipotekatzeko libre uzten zuen dohaintza egitea maiorazkoaren herdentzia arauak inposatuz, gizonezkoen lerrotik⁵³. Sendiaren enborra hain-

51. B.K., 832-44 (1583); geuk azpimarratuta. Bitxi pertsonalak erostea estatusa adierazteko gain krisialdietan altxorrazteko izan zitekeen (ik. id., 437-77: doña Maria Sánchez del Barco Sancho Iobari testamenduan utzitako urrezko kate lodia, etab.)

52. Id., 544-157 (1656 baino lehenago). Kristo Sainduaren adokazioa XVIIgnean hedatu zen baina aurreko mendeetan maitarazten zen ere, eta sinesmen aldetik ez digu ezer adierazten.

53. B.K., 363-404 (48. oharran aipatuta). Etxeen eta balea-koiperako tinak: 2.350 dukat (tasazioan); zentsuak: 1.861 ½. Oraindik ez dugu aurkitu Sanchori dohaintzaz edo herdentziaz utzitakoa: beste maiorazkorik?

beste hestutzeko asmotan zeuden, seme legitimoen ezan naturalak onartuko ziren; nolanaei legezkoetako erret-baimena erostea erlatiboki merkea zen⁵⁴. Foru pean ez zeuden Bizkaiko ogasun hiritarrentzat aroko maiorazkoen historia zehatza egin gabe dagoenez, ezin dezakegu jakin Barcotarren formula berezia zein neurritan zen. Izan ala ez, kalitatezko urrats honek sendiaren hurrengo belaunaldien jokaera baldintzatuko zuen. Lankortasuna galdu gabe erdi noblezian sartuta, gorantzago igoteko gai eta prest, XVIIgneko gizonezkoek “don” tratamendua lortuko zuten; ikusi dugunez, errentak eta estatusa (hauxe da, kontaktuak, ospea, itzal luzea) eskatzen zituzten jaurreiko karguetarako zozkatuta izango ziren, eta Hortuñoren semea zen don Bartolome Mexiko zilardunera oin sendoz helduko zen, sendiari bide distiratsuak zabalteko.

Gizonek leinua ezin zuten bakarrik eraiki -emakumezkoen eragina ideologja maskulinoaren alde ez da hemen aztertzekoa. Ezkontzak senar-emazte-gaiak haien senide, ahaide, menpeko eta kideen sare anizkuntan elkar sartzten zituen; ez desorekatzeko, elementu berri bakoitza onartu baino lehen askoren interesak elkarrekin eztabaidatzen ziren. Bartolomerengandik aurrera (eta arbasoengan noiztenka), emakume ezkontide guztiak erret-zedularik behar ez zuten “doña” berezitasuñoaren ezaugarria eramaten zuten. Senargaiei zetozkien doteak suposatzen dizkiegu. Lan tratuak sortarazi zuen adiskidetasun edota uste osori esker partaide fidagarrien arrebak edo alabak aukeratzen ziren, jatorrizko sendiaren baliokideak izateagatik honen birtute guztiak pertsonalki ez balituzte etxekoan presioak jokaera egokia bermatuko lukelako. Aldi berean, ezaguna denez, “enpresa” atxikidurak lotzen ziren; Barcotarren kasuan ekoizpen eta geografia aldetik osagarritzkoak ziren⁵⁵. Atsegin eta, zergatik ez?, maitasuna legezko bikotean eskasak zirenean, gizonezkoek -emazteek, inoiz ez- kanpotik, gizarte-tolerantziak baliatuz, noiztenka bilatuko zituzten: leinuari kaltegarri, legeak baimendutako loturak lekizkioko soilki⁵⁶. Ekitez eta jarraiz, XVIIIgn mendeak oparotasuna ekarriko zuenerako Barco sendia beso luze tinko irekiz bere zai egongo zen.

54. Sancho del Barcoentzat (ik 49. oharra) eta, uler daiteke, epailearentzat bere gurasoen eta, dirudienez, aitagandiko aititeren ezkontza legitimoaren ezak etorkiaren kaparetasuna ez zion hausten, aitak haren etxean onartu zuelako. Ezkontzaz kanpoko harreman sexual iraunkorren aurkako Trentoko kontzilioaren bultzada maiorazkoen fundazio ugazko aroarekin batera zihoala hipotesian esan daiteke.

55. Doña Agueda de Aranaren koinatua zen Pedro Ochoa de Duo, setazko ehunak Valencian erosten zituzten (B.K., 882-38 [1567]); ez dirudi Barcotarrak eremu honetan zuzenki aritzen zirenik. XVIIgneko Tristan de Aboitz Leguizamon batek Josefa del Barcorekin ezkonduko zen (ik. 49. oharra). Aparicio de Ormaecheren ama María Sánchez del Barco zen. Bigarren emaztetzat Antonio de Jugoren alaba izan zuen (B.K., 86-223 [1590]). Merkatari honek ehunak, mihiseria, ezkoa, papera eta kobrea inportatzen zituen, saltokiak Hortuñorenak antzekoak zirela; Laburdiko arrantzan inbertitzen zuen (id., 87-235, 243 eta 256 [1591]: “Juana de San Vicente” eta “María de San Vicente” Ziburuko untzietan; itsasontzien jatorria izenen bidez ezagutzea posiblea da [ik. ZABALA, aip., 12-13]); Aparicioen koinatu errentaduna zen Juan de Bengoecheak, baita ere (B.K., 87-81 [1591]). Horrelako elkarganatzak aroko merkatari askorengan aurkitzen dira; aldaketa logikoekin, XXgn menderarte Bilboko saltzaile-burgesiagan ohizkoak izango ziren.

56. Id., 1603-77 (1598): Otxandioko neskame baten ordaintze-agiria Sancho del Barcori, sexu-harremanetan egotearen emandako dirua eta ondasunengatik.